



ANALISIA

# Ahalduntzea da gakoa

Estitxu Eizagirre eta Lander Arbelaitz

@eeizagirre // @larbelaitz

ARGAZKIA: TOLOSALDEKO ATARIA · ITZEA URKIZU

Lehorte boladan euria bezala hartu dugu Euskaraldia euskaltzaleok. Ez ote zeuden, bada, euskararen aldeko herri mugimenduak basamortuaren zeharkaldian, diruz eta aktibistaz nahiko larri, jauzi kualitatibo bat emateko zer egin asmatu nahian?

Lehen tantak 2014 aldera etorri ziren, betaurreko moreek ematen zuten ikuspegi feminista euskalgintzara ekarrita. Euskaldun izate hutsagatik pairatzen den zapalkuntza bistaratzea eta honi aurre egiteko ahalduntzearen beharra aldarrikatzen duen irakurketak horizonteak zabaldu zituen. 2015eko martxoan Korrikak *Euskahaldun* kontzeptua Euskal Herri osoan zabaldu zuen. Urte bereko uztailean Lutxo Egia idazleak Bilbon 30 egun denei euskaraz eginez pasatu eta bere esperientziak *Berriako Transitoak* blogean kontatu zituen. Esperimentera iragarri zuenean, feminismotik ikasitako irakurketak aipatu zituen, nagusiki euskaldun gisa "hautu kontziente eta politikoa" egiteko beharra. 2016 hasieran Donostiako Egia auzoan ariketa psikolinguistikoa maila kolektibora eramanean zuten lehen aldiz, eta udazkenean beste hainbat herritan egin zen: Hernani, Lasarte-Oria eta Agurain, bakoitza bere planteamendu ezberdinarekin.

Aurrekari hauekin, eta Lasarte-Oriako ereduaren aldeko apustuarekin –*ahobizi* eta *belarriprest* bereizten dituzten figurak herri honetan asmatu zituzten–, Euskaraldia egin dute nagusiki Topaguneak eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin, gerora sustatzaile gehiago sartu badira ere. Instituzio publiko batek euskalgintzaren urteko ekimenik indartsuenean lidergo papera hartzeak ez du eztabai-

darik piztu. Hala ere, galderak berez datoz: hainbeste urteren ostean erakundeek beren burua normalizatu gabe dutenean, koherentea al da Lakuatik hasi eta udaletara, beraiek aritzea euskararen aldeko borrokaren gakoa herri-tarren aktibazioan jartzeko? Jaurlearitzak ez ote zukeen mugatu behar ekimena laguntzera? Eta lidergoa partekatze-koan, zergatik ez ardurak ere partekatu, herri mugimenduek herritarrek aktibatuz, eta erakunde publikoek konpromiso zehatzak eta ausartak hartuz, aldi berean? Hamaika egun horietan has daitezke, adibidez, ETB2n euskarari beste leku bat ematen, probatzen, datorren urtean bide beretik urrats handiagoak egiten jarraitzeko.

Marketingak, baliabide ekonomikoek eta Euskal Herri osoan aurrean bertan egin behar diren abiadurak, hasierako zaparrada korronte bihurtu dute. Herri eta eragile askok hizkuntzaren gaia modu kolektiboan bistaratzeko aukera gisa ikusi dute; beste herri eta eragile batzuetan, zalantzak handiagoak izan dira –izan planteamenduagatik, izan herriaren egiten ari zirenekin lanketarekin uztartzeko zailtasunengatik–, nahiz eta azkenean, hori egon beharra gailendu den orokorrean, ezin kanpo geratu.

### Txaparik ez duenari ere euskaraz

Euskaraldiaren olatua ganean da. Modu masiboan eta urte bakarrean hedatua, arriskua du zabaldu behar diren erakunde euskararen aldeko atxikimendu kanpaina bihurtzeko askoren buruetan. Hala ere, aipatutako lehen esperientzia horiei begiratuta, ez da hori ariketaren oinarria: ahalduntzea da kontua.

Euskaltzaleontzako gakoa horixe izango da hamaika egun hauetan ere, nazio

mailako oihartzuna lortu dela baliatuta: feminismotik ikasitako ahalduntzea praktikara eramanda, euskaraz bizitzeko hautuari eustea egoera guztietan, aurrekoak *belarriprest* txapa izan edo ez. Tokian toki, askatasun bidea urratzea, konplexurik gabe. Desobedientzia ekintzatik asko du ariketa honek. Giro erdalduneko tabernan euskaraz eskatzea eta elkarrizketan euskarari eustea ez ote da, bada, arau sozialei desobedientzia egitea? Horregatik antolatu izan dituzte TELP tailerrak herri askotan, hizkuntza talkaren aurrean euskaldunak ahaldundu eta irribarrea galdu gabe euskarari nola eutsi entrenatzeko, beharra handia baita.

ARGIAk iaz banatu zuen euskararen mapak zera iragartzen du: uste baino jende gehiagorekin egin dezakezu euskaraz. Marketing kanpainarik handiena ere ez litzateke iritsiko egun *belarriprest* txapa ematera Euskal Herrian euskara ulertzen duten denek. Buruan dugun irudia baino askoz euskaldunduagoa zaigu herria dagoeneko. Gakoa, beraz, txapa eramanez edo ez, norbere burua ahaldundu eta alde guztietan euskaraz egitea da, lehen hitzetik harago.

Ez da faltako Euskaraldian euskararen aldeko argazkia atera eta beti bezala erdaraz funtzionatzen jarraituko duen erakunde, elkarte, herritarrik. Epe motzean masibo egin nahiaren prezioa da.

Kanpaina hau bakoitzak nahi duen eran ulertu duela, besteak beste, eta salbuespenak salbuespen, ez delako argi komunikatu *ahobiziek* zer egin behar duten lehen hitzaren ondoren inolako txaparik ez daramaten pertsonekin. Egoera deserosoak bistarazi eta hauek kudeatzea baino, ez al da egoera deserosoak saihestea bilatu? Uholde honen abiapuntuan egondako tanten ekarpena ez baitziren

*belarriprestak* izan, euskaldunen ahalduntzea baino, txaparik janzten ez duten erdaldunekin ere nola jokatu planteatu ziena. Noiz eta zergatik difuminatzen dira feminismoarekiko erreferentziak, ahalduntzea, epe luzeko prozesuaren garrantzia, eguneroko bizitzako talkak?

### Olatua datorrenean, igeri

Euskaltzaleok goza dezagun festa, hainbeste urtean eta jasandakoak jasanda ere euskaraz bizitzeko hautua egina dugunok, aktibistok. Klean aldeko giroa izatea, euskara elementu positiboekin lotzea, euskaltzaleei ikusgarritasuna ematea beti da gozo. Ez ote dira, bada, gaur arte izena eman duten milaka *ahobizi* horiek betiko euskaltzaleak? Are, horietako zenbat dira herrigintzako beste esparru askotan inplikaturakoak?

Milaka lagun lan fina eta serioa eragin duen olatua, hamaika egunen ostean joan egingo da. Lekuan leku utzi dezakeena da, ordea, garrantzitsuena: herrietan sortu edo indartu diren euskaltzaleen taldeak, harreman sareak, partekatutako bizipenak...

Herritarrek beren parte egingo dute, baina erakundeek ere ardura beren gain hartzeko unea heldu da. Ekimenaren aurkezpenean, Eusko Jaurlaritzak adierazi zuen 2019a instituzioen urtea izango dela. “Erakunde bakoitzean praktika sozial berriak” erraztuko dituen neurriak hartuko dituztela. Hezkuntza sistematik hasi, Osakidetza edo hizkuntzaren irakaspenaren doakotasunetik jarraitu, eta administrazioaren lan hizkuntza euskara egiteraino, bada zereginik. Euskaraldiak indartutako euskaltzale ahaldunduak izan daitezela herriz herri, erakundeek konpromisoaren beren parte betetzen dutenaren berme. ■

